

## Kutxabank kaudimen onena duen erakundea da bosgarren urtez jarraian

- Europako Banka Agintaritzak eginiko gardentasun txostenak % 16,10eko 'CTE1 fully loaded' ratioa eman dio, Espainiako Banka osoko onena
- Oinarriko kaudimen maila onena eta palankatze ratio onena dituen Bankua da bosgarren urtez jarraian, adierazle guztietan hobetuta gainera

**2019ko azaroak 29.** (EBA) Europako Banka Agintaritzak eta (EBZ) Europako Banku Zentralak Europar Batasunean 2019. urteari dagokion gardentasun txostenari eta EBAko Ikuskaritza Batzordeak erabakitakoari buruz honakoa adierazten dute, Kutxabank S.A.-k jakitera eman duenez.

Europako Batasunean 2019. urtean egindako gardentasun azterketaren oinarria

EBAko Ikuskaritza Batzordeak, 2019ko apirilean eginiko bileran, Europako Batasunean 2019. urtean egindako gardentasun azterketa onartu zuen. 2016tik aurrera, azterketa horiek urtero egin ohi dira eta arriskuen ebaluazioko txostenarekin batera argitaratzen dira. COREP/FINREP atalean dagoen informazioan oinarritzen da soil-soilik urteroko gardentasun txostena, merkatuko partaideek behar duten informazio-maila nahikoa eta egokia izan dezaten.

Txantiloiak EBAk zentralizatu eta bete zituen, gero kreditu-erakundeei eta ikuskariei bidali zitzaizkien balioztatu zitzatzen. Izan zitzaketan akatsak zuzentzeko eta zuzendutako informazioa ohiko bideetatik ikuskatzaileari bidaltzeko aukera izan dute kreditu-erakundeek.

### **Hobekuntza finkoa kaudimenean eta palankatzean**

Europako Banku Agintaritzak gaur jakitera eman duen gardentasun txosten berriaren arabera, euskal Bankua bosgarren urtez jarraian sistemaren buruan da kaudimenean, **'phased in' bertsioan % 16,29ko Core Tier1** baitzuen 2019ko ekainaren amaieran. Gainera, % 16,10eko **'CTE1 fully loaded'** (kapitala kalkulatzeko, zenbaketa iragankorraren arauak kontuan hartu gabe) ratioa eman dio banku gardentasun txosten horrek, hortaz, sektorearen batez bestekoari ateratzen dion aldea handitu egin da eta Espainiako Bankaren onena dela dio.

Lehen seihilekoko emaitzak aintzat hartu izan balira, **'phased in' bertsio**ko **Core Tier1 % 16,63raino** iritsi zitekeen, **'fully loaded'** kaudimena, bere aldetik, % 16,35ekoa izango litzakete.

Europako Banku Agintaritzaren txostenak dioenez, **palankatze ratioan** ere -arriskuen pisua neurtu gabe kalkulatzeko dena- lidergo-kokapen argia du. Kutxabank Taldea berriro ere kaudimen onena duen erakundea da arlo honetan, 2019ko ekainean % 7,99ko ratioa baitzuen.

Errentagarritasunari dagokionez, Kutxabank Taldearen etengabeko hobekuntza nabarmendu behar da. Europako Banku Agintaritzaren metodologiaren arabera kalkulatu den RoRC (Return on Regulatory Capital) adierazlea % 8,4an dago kokatuta.

Kutxabankek aurrerapenak egin ditu gardentasun txostenaren gainerako adierazleetan, hala nola merkatu-arriskuan, kreditu-esposizioetan, arrisku subiranoko esposizioetan, zalantzazko saldoetan eta birfinantzatutako esposizioetan. Horrek guztiak Kutxabanken negozio-ereduaren sendotasuna islatzen du, eta finantza-sistemaren barruan duen posizioa finkatzen du.

### **Arautzaileek eta ikuskatzaileek Kutxabanken balorazio positiboa egin dute**

Europako Banku Agintaritzak kaudimenik handiena duen erakundea dela aitortzeari, Europako Banku Zentralak eta Ebazpen Batzorde Bakarrak egindako beste ebaluazio batzuk gehitu zaizkio.

Europako Banku Zentralak urtero egiten du SREP bere ebaluazioa, eta, 2019an, errekerimendu txikiena izan duen erakundea izan da, berriz ere, Kutxabank, % 1,20koa hain zuen, eta, bere arrisku-profil murrizari buruz gainbegiraleak balorazio positiboa egiten duela erakusten du horrek. Hala, euskal finantza-taldearentzako kapital-errekerimendu osoa, CET1en % 9,20koa eta kapital osoaren % 11,70ekoa da ekitaldi honetan; beraz, gaur ezagutzen diren datuek ere buffer edo kapital-koltxoi handiena duen erakundea dela diote, gutxieneko errekerimenduei dagokienez. Gogoratu dezagun, iaz EBAk eta EBZk Espainiako finantza-sistemari egindako estres-probetan Kutxabank izan zela Espainiako finantza-sistemaren erakunde liderra, % **13,5eko CET1 'phased in' ratioarekin**, eta % **13,1eko CET1 'fully loaded' ratioarekin**, planteatutako egoerarik txarrean.

Gainera, testuinguru okerrean **kapital gutxien desegiten** duen erakundeetako bat da Kutxabank, hau da, balizko krisialdi egoera berri batean gutxien sufrutuko lukeenetako bat, bere negozio ereduari eta arrisku profilari esker.

Azkenik, aurten, Ebazpen Batzorde Bakarrak igorritako MREL errekerimenduari buruzko erabakiak ezagutu dira, eta Kutxabank berriro ere Espainiako finantza sektoreko buru postuetan mantendu da, % 19,5eko errekerimenduarekin; erakunde horrek finantza taldearen arrisku eta ebazgarritasun profilean konfiantza duela erakusten du horrek.